



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

Klub eta federatu estimatuok:

Normaltasun berrirako trantsizio planaren barruan bizitzen ari garen deskonfinamenduan, asko dira beren jarduera sozial eta ekonomikora itzultzeko berariazko babesa beharko duten kolektiboak eta errealitateak.

Landa-inguruei laguntzeko kanpaina bat sustatu dugu EMFtik, eta keinu horrek bere isla izan du FEDMErekin eta autonomia-erkidegoetako mendi-federazioekin batera kaleratutako komunikatu batean. Dokumentu horretan, agerian geratu da gure kolektiboak mendian egiten dituen jardueretan mendi-inguruek eta inguru horietako herriek duten garrantzia, bai eta horietan lan egiten duten enpresek dutena ere (aterpetxeak, ostatuak, tokiko produktuen saltokiak, jatetxeak, turismo aktiboko enpresak, garraioak...).

Gerora, aurrera egingo du esparru horretan federazio bakoitzak, eta **estrategia zabalagoa garatuko du**. Emango dizugu horren berri unea iristean. **Lehen-lehenengo egingo dena promoziorako bideo bat editatzea izango da, Euskal Herriko landa-inguruneak babesteko mezua zabalduko duena.**

Eta, kanpaina horretan, beharrezkoa dugu zuen parte-hartze aktiboa; bidaliezazkiguzue kontzeptu hauekin lotutako argazki eta bideotxoak: mendia, lurraldea, herriak, paisaia, bidexka, bizilaguna, landa, kirola, bidea, gailurra, aterpetxea, pasabidea, isurialdea, bizitza, ura, egunsentia, ekipamendua, elkartasuna, igoera, zerumuga, jendea, natura, ekintza, Euskal Herria, iraunkortasuna...

Euskal Herriaren esparruan, deskonfinamenduko hirugarren fasean egindako argazkiak edo bideoak izan behar dute, eta formatu digitalean bidali beharko dira. Irudi edo fitxategi bakoitza zuen NANarekin edo EMFko identifikazio-zenbakiarekin identifikatuko da, eta izenburu bat izango du:

- Argazkien kasuan, JPG formatuan, 2 Mb-ko gutxieneko pisuarekin, horizontalean ateratakoak, eta 30 x 20 cm-neurrikoak (300 ppp)
- Bideoen kasuan, baldintza tekniko hauek beteko dituzte: MP4 formatuan, egonkorak, 5-15 segundo bitartekoak, 100 Mb-ko pisu maximoarekin, eta gutxienez, 1280x720 neurrikoak.

Ahal dela, fitxategi handiak bidali eta partekatzeko tresna baten bidez bidaliko dira ([Wetransfer](#) edo antzekoren bat), edo zuzenean helbide elektronikoa honetara bidal daitezke saresozialak@emf.eus (fitxategien neurria kontuan hartuta, 35 Mb gehienez). **Fitxategi digitalekin batera, materiala lagatzen dela adierazi beharko da, sinatuta:** materiala, bideoa editatzeko ez ezik, beste xede batzuetarako ere erabil dezake federazioak bere jakinarazpenetan; eta, horrez gain, jasotzen dugun materiala aldatu ahal izango dugu, amaierako artelanerako.

Argazkiak eta bideoak jasotzeko epea ekainaren 13tik 21era bitartekoa da. Jasotzen ditugunean, adituen talde batek aukeraketa egingo du (kalitate-irizpideen arabera eta amaierako muntaketarako egokitzapena kontuan hartuta). **Aukeratzaren diren argazki eta bideoen egileen artean, eta kontuan hartuta EMFn izena emanda egon behar dutela, zenbait ostatu-gau zozkatuko dira bi lagunentzat, mendiko aterpetxe batean edo antzekoren batean (sariari buruzko xehetasunak eta sariaz gozatzeko baldintzak EMFren webgunean argitaratuko dira, aparteko dokumentu batean).**



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

Garrantzitsua da zuen parte-hartzea, Arabako, Bizkaiko edota Gipuzkoako mendialdeko herrieekin eta mendian zerbitzu hobeeekin ibil gaitezen ezinbestekoak diren enpresa txiki eta autonomoekin elkartasunez jokatzeko.

Gasteizen, 2020ko ekainaren 12an



Estimados clubs, federadas y federados:

En la desescalada del Plan de transición hacia la nueva normalidad que estamos viviendo, son muchos los **colectivos y las realidades que van a necesitar un apoyo explícito para que recuperen su actividad social y económica.**

Desde la EMF-FVM, **hemos promovido una campaña de apoyo a las zonas rurales**, que se ha plasmado en un comunicado conjunto con la FEDME y las Federaciones Autonómicas de Montaña. En este documento, **se pone de manifiesto la importancia que estos territorios de montaña y poblaciones, así como el de las empresas que trabajan en ellas, tienen en las actividades que nuestro colectivo realiza en las montañas** (refugios, albergues, tiendas de productos locales, restaurantes, empresas de turismo activo, transportes, ...).

Plaza Amadeo García Salazar 2, 2º – 01007 VITORIA-GASTEIZ - Telefonoa: 945 12 43 35

www.emf.eus

E-maila: vitoria@emf.eus



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

Posteriormente, cada federación irá más allá y **desarrollará una estrategia más amplia, de la que os iremos informando. La primera acción que se llevará a cabo es la edición de un vídeo promocional que servirá para lanzar el mensaje de apoyo a las zonas rurales del País Vasco.**

Y en esta campaña **necesitamos vuestra participación activa, que colaboréis enviando fotografías y pequeños vídeos de calidad** que hagan referencia a estos conceptos: montaña, territorio, pueblos, paisajes, senda, habitante, rural, deporte, camino, cima, refugio, paso, vertiente, vida agua, amanecer, equipo, solidaridad, ascensión, horizonte, gente, naturaleza, acción, País Vasco, sostenibilidad, ...

Las fotografías o los vídeos deberán estar realizadas en la Fase 3 de la desescalada, dentro del ámbito del País Vasco y deberán enviarse en formato digital. Cada imagen o fichero irá identificada por vuestro DNI o nº de identificación EMF y un título:

- en el caso de las fotos en formato JPG con un peso mínimo de 2 Mb, sacadas en horizontal y un tamaño de 30 x 20 cm a 300 ppp
- en el caso de los vídeos los requisitos técnicos serán: en formato MP4, estables, de entre 5 y 15 segundos, con un peso máximo de 100 Mb y un tamaño mínimo de 1280x720

El envío se realizará preferiblemente a través de una herramienta para enviar o compartir archivos grandes ([Wetransfer](#) o similar) o directamente al correo electrónico saresozialak@emf.eus (teniendo en cuenta el tamaño de los archivos, hasta un total de 35 Mb). **Acompañando a los archivos digitales deberá ir, firmada, una cesión del material:** el material no sólo podría ser utilizado para la edición del vídeo, sino para cualquier otro uso que pueda hacer la federación en sus comunicaciones; asimismo el material que recibamos puede ser transformado en pro del arte final.

El plazo de recepción de las fotografías y los vídeos será del 13 al 21 de junio. Una vez recibidas, un grupo de expertos las seleccionarán (según criterios de calidad y de adecuación al montaje final). **Entre las personas cuyas fotografías y vídeos entren en esta selección, y siempre y cuando sus autores estén dados de alta en la EMF-FVM, se sortearán varias pern noctas para dos personas en un refugio de montaña o similar (el detalle de los premios y las condiciones para su disfrute se publicarán en la web oficial de la EMF en documento aparte).**

Vuestra participación es importante, una oportunidad de ser solidarios con los pueblos de montaña de Araba / Bizkaia / Gipuzkoa, así como con los habitantes y las pequeñas empresas y autónomos que ayudan a que nosotros disfrutemos con mejores servicios en las montañas.

Gasteiz, a 12 de junio de 2020